



### **Bezeroekin harremanak**

Bezeroak fidelizatzeko deskontuak eta promozioak egingo ditugu. Hiru erosketatik batek, %10eko deskontua izango du. Alokatzailearen produktuan eragiten duen deskontu hori enpresak estaliko du, hau da, alokatzaileak ez du deskontu hori sumatuko.

Bestalde, bezero berriak erakartzeko, esteka baten bitartez, bezero batek beste bezero batzuk erakartzen baditu, bai esteka bidali duen bezeroak, bai estekaren bidez alokatu duen bezeroak %5eko deskontua izango du.

Horretaz gain, propaganda egin beharko dugu, eta horretarako, tiktokerrak edota pertsonai publikoak ordainduko ditugu sare sozialen bitartez gure webgunea eta aplikazioa iragartzeko. Halere Youtube edo Instagram bezalakoetan iragarkiak jarriko ditugu, bezero segmentu zabal batera heltzeko asmoarekin.